

Kirola

Durangon 640 kilora arteko sokatira txapelketako finala jokatu dute bihar > 16



‘Berritu San Fausto’: Udalaren plana eta auzotarren kexak

San Faustoko bizilagunek auzoa alboratuta egon dela diote, eta etxebizitzak berritzeko dirua nork jarriko duen galdetzen dute > 2-3



K.Aginako

Durangaldeko I. Maketa Lehiaketa eratu dute lau udalen artean > 13

Iurreta, Durango, Abadiño eta Zornotzako udalen ekimena da

Gaur hasi eta martxoaren 8ra arte, Durangaldeko musika taldeek beraien lanak bidaltzeko aukera dute. Proposamen guztietatik berderatzi aukeratuko dituzte. Lehenengo saria eskuratzen duen taldeak 1.800 euro eskuratuko ditu. Euskarazko kanturik onenak, berriz, 500 euro jasoko ditu. Gaztedi Planean dauden Durangaldeko udalerriek jarri dute martxan, lehenengoz, Durangaldeko Maketa Lehiaketa: Iurretak, Durangok, Abadiñok eta Zornotzak.



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

2013ko otsailaren 6tik 28ra
(13:00ak arte)

MATRIKULA LIBREA 2012-13

EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA,
ALEMANA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:

www.eoidurango.net



Elorrio > 7

EAJK aurreko gobernuaren "irregulartasuna" salatu du

Zaldibar > 6

Haurreskolako proiektuak ika-mika sortu du udalean

Mañaria > 8

Hiri Antolamendurako Plana prozesu parte-hartzaile bidez

Abadiño > 8

Eskolako jolasgunea handitzen dabilta Traña-Matienan

➤ Herririk herri

> DURANGO

San Fausto berritu gura dute, auzoko bizi kalitatea hobetzeko

Ihobe erakunde publikoaren laguntzagaz azterketa bat garatuko du udalak: 'Berritu San Fausto'

> MARKEL ONAINDIA

San Fauston duela 50-60 urte eraiki zituzten etxeak, gaur egun ezagutzen den auzoari jaiotza emanez. Ordutik hona, ez du eboluzio handirik eduki: etxeak zaharrak dira, hezetasun arazoak dauzkate askok, eta irisgarritasun aldetik ere, gabeziak daude. Badirudi ez dela XXI. mendeko Durangoren parte. Ho-

Hezetasun arazoak dauzkate askok, eta irisgarritasun aldetik gabeziak daude

rrez gainera, kale eta patioetan zikinkeria ugari dago, eta bizilagunak behin baino gehiagotan kexatu dira alboratuta sentitzen direlako. Bada, baliteke egoera horri buelta ematea. Auzoan hainbat etxe eraikitzeko asmoa dauka udalak, eta orain, proiektu berri bat ipini du martxan: *Berritu San Fausto*.

Udalak, Ihobe erakunde publikoaren laguntzagaz, azterketa bat garatuko du San Fauston. Irisgarritasuna lortzeko

eta energia aurrezteko posibilitateak ikertzea da udalaren helburua. Esaterako, fatxadak, sarrerak eta teilatuak konponduta. Emaizak praktikan ipiniz gero, auzotarren bizi kalitatea hobetu ahal izango dela uste dute. Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak eman du udalaren asmoaren berri: "Ekimen honen helburua durangarren bizi kalitatea hobetzea da. Emaizak ikusita, denon artean erabakiko dira beharrezkoak diren ekintzak auzoa hobetu dadin, batez ere, irisgarritasun mailan eta energia-eraginkortasunean". Prozesuan auzotarrek parte hartzea gura du udalak.

Kontsumoa neurtu

Dagoeneko aurkeztu diete egitasmoa bizilagunei, batzar bidez. Inkestak banatu dituzte, eta hainbat etxetan argiaren eta gasaren kontsumoa neurtuko dute. Etxeetan lanak eginez gero, jaso ahal izango ziren kontsumo mailekin alderatzea dute helburu. Adibidez, berogailuaren beroa horma zaharretatik joan egiten dela uste dute. Fatxadak konpontzeak kontsumoan aurrezteak ekarriko luke. Bestalde, auzo osoarentzako alternatiba bero-



San Fausto auzoaren eraldaketaren konparazioa egin dute teknikariek dossierrean.

gailu sistema zentrala izan ahal den probatu gura dute.

Azterketaren ostean, finantzazio aukerak topatzen saiatuko dira. Dagoeneko aurreratu dute posibilitate bat: etxeen sabaietan pisu bat gehiago eraikitzea, gero saltzeko. Etxeetako la-

Inkestak banatu dituzte, eta hainbat etxetan argiaren eta gasaren kontsumoa neurtuko dute

nek auzoaren urbanizazioan ere edukiko lukete eragina.

Momentuz, azterketa bat da bakarrik. Finantzazioak esango du San Fausto eraberrituko den edo ez. Egoera ekonomikoak, behintzat, ez du aldeko haizerik ekarriko.

> INKESTA

Zelan dago San Fausto auzoa zure ustez? Zer beharrian dago?



Bego López

San Fausto beti egon da marjinatuta. Orain, etxe berriak egiten dabiltzala, badirudi konturatu direla auzoak ez duela estetikoki bat egiten, eta hori konpondu gura dutela. Utzikeria dago. Adibidez, txintxaunak beti dira bigarren eskukoak. Arratoi piloa ere badago.



Antonio Fernandez

Zabor biltzaileak astean behin edo birritan bakarrik etortzen dira. Goiko etxe atariak, esaterako, botilaz-eta josita daude. Etxeetan, hezetasun handiak daude, batez ere, pisu altuenetan. Zerbaiten beharra bazegoen, urte askoko etxeak dira-eta.



Maria Angeles Biritxinaga

Umeez jolasteko leku itxi baten beharra daukate. Eurria egiten duenean, nora eroango ditugu? Horrelako leku bat ondo etorriko litzateke. Zikinkeriaz gero patioetan dago arazoa, batez ere. Hezetasunei dagokienez, nire etxean ez daukat arazorik, eta ez naiz kexatzen.

GORKA PEREZ ETA JUAN JESUS DIEZ | Gure San Fausto Berria elkarteko kideak |

“Nork finantzatu du hori guztia?”

Udalaren azterketaz, beharrezanez eta auzoaz berba egin dute Perezek eta Diezek

>M. O. Gure San Fausto Berria elkarteko presidentea eta presidenteordea dira, hurrenez hurren, Gorka Perez eta Juan Jose Diez. Biak langabezian, auzoaren egoeraren erakusle. Udalak bultzatutako azterketa ondo dagoela diote, baina lehenengo oinarritzko beharrezanez aurre egiteko eskatu dute. San Faustoko auzo bizitza indartsua dela uste dute, baina egoeratik bizilagunak ilusioa galduta dardela.

Zelan joan zen udaleko ordezkariekin batzarra?

Gorka Perez: 30 eta 40 lagun artean joan ginen, komunitateetako presidentek eta informatu gura zuen jendea batuta.

Juan Jesus Diez: Jendea ez zen oso prest agertu proiekturako. Proiektua bera ondo ikusten zuten, baina ez aurrekontu bat egotea azterketa baterako, auzoan oinarritzko beharrezanez dardenean eta betetzen ez direnean. Beharrezanez horiek urte askoan aldarrikatzen egon gara auzotarrak.

Azterketaren ostean, finantzaketa etorriko litzateke...

J.J.D.: Jendeak honako ardurak dauka: teiltatuak konponduko ditugu, igogailuak ipini, fatxadak konpondu... Nork finantzatu du hori guztia? Maila ekonomikoan, beharrezanez auzoa da hau, eta gauzak dauden moduan daude. Kostu horiek ordaintzea gastu handia da fami-

lientzat. Ez da prest egotea bakarrik; jende bat ez dago hori ordaintzeko egoeran.

G. P.: Ihobekoek esan zuten berogailua isiotzean, beroak ihes egiten duela hormetatik, eta fatxa-

“

Maila ekonomikoan, beharrezanez auzoa da hau, eta gauzak dauden moduan daude. Kostu horiek finantzatzea gastu handia da familientzat”

da konponduta hori saihestuko litzatekeela. Hoge euro gehiago ordaintzea ala ez; baina hoge euro horiek ezin baditugu ordaindu, zelan sartuko gara 15.000 edo 20.000 euroko inbertsio batean? Bestela, azterketa ondo dago, eta batzuk prest agertu dira euren etxeetako argiaren eta gasaren kontsumoa neurtzeko.

Proiektuan, esaterako, berogailu sistema zentrala planteatzen da.

J.J.D.: Eraiki bako lursaila baltz, agian bai, baina hemen, pertsonalki, apur bat utopikoa iruditzen zait hori. Kea saltzen dabilzala dirudi. Etxeetan ere pisu bat gehiago eraiki ahal dela dio-



te, saldu eta obrak finantzatzeko. Baina, badaude pisuak ezin direnak saldu.

Zeintzuk dira zuen kezak auzoaren egoera dela-eta?

G.P.: Kaleak garbitzera martitzenetan eta eguenetan etortzen dira bakarrik. Hori neguan bada, beno. Baina udan umeak kalean daude egunero. Arratoiak daude, etxeetan hezetasunak, espaloiak hobetu behar dira, nagusiek arazoak daukate eskailerekin... Irisgarritasuna oso txarra da. Badakigu dena batera ezin dela egin, baina behintzat, egin dezatela urtez urte gauzaren bat.

Lehen obra batzuk egin ziren.

J.J.D.: Ziarrustaren agintaldian, hilero-hilero gauza bat egin hasi ziren, baina gero hor ge-

“

Kaleak garbitzera martitzenetan eta eguenetan etortzen dira bakarrik. Hori neguan bada, beno. Baina udan umeak kalean daude egunero”

ratu zen. Bestalde, udalak utzitako materialagaz konponketak egitera ohituta egon da hementxe jendea. Horiek zahartu egin dira, eta belaunaldi berriak ez dio ohiturari jarraitu. Baina, zergatik moztu behar dut arbola bat nik, Ezkurdin enpresa batek egiten duenean? Zergatik, zerga berdina ordaintzen badituz eta eskubide berberak badauzkat?

Zer sentsazio dauka jendeak?

J.J.D.: Jendea ilusioa galduta dago. Begira zentro zibikoa ere, 2004an hasi eta amaituta behar luke. 2013an gaude, eta egin duten gauza bakarra eskola zaharrak botatzea da. Ondo etorri da aparkatzeko lekua dagoelako, baina ez dago aurrerapean. Zein den arazoa? Benetan, ez dakigu.

NACEX

San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62 - Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

Taldeak!

Preparto
Posparto
Hipopresiboak
Pilates

hiru
fisioterapia

Talde murriztuak - Balorazio posturala doan - Ordutegi malgua
Irakasleak fisioterapeuta espezializatutak izango dira

> DURANGO

500 urte atzera eginda topatu dute Durangorako Hiri Marka

Juan de Iciarrek 1548an jasotako letra batean dauka oinarria: 'd' etzana

> MARKEL ONAINDIA

Durango badauka bere Hiri Marka. Horretarako, 500 urte atzera egin dute. Izan ere, Juan de Iciar kaligrafo durangarrak 1548an jasotako letra batean dauka oinarria: *d* etzana. Martitze-

nean aurkeztu zuten logotipoa, udaletxean, eta Ramiro Garcia koordinatzaile ak esan zuen sustriak eta historia dauzkala. Baina, etorkizuneko balioari eman zion indarra: "Garrantzitsua denboran iraun dezala da".

Bere ustez, XVI. mendean legez XXI.ean ere funtzionatzen duen marka da aukeratu dutena.

Iker Oveja zinegotziak azaldu zuen bederatzita hilabeteko prozesua garatu dutela. Diseinugile talde batek hainbat logo sortu zituen hasieran, eta talde aztertzaile batek galbahea ezarri zuen gero. Hiru logoren artean aukeratu zuten azkenik, zinegotzi, merkataria eta herritarrekin batera. Aurkezpenean azaldu zuten, 800 durangarrek baino gehiagok parte hartu zuten



Promozio kanpaina durangarrek parte hartuko dute, eskuagaz keinua egiten.

Dendak Bai elkarterako logoaren aldaera bat eratu dute, eta turismorako leloa ere bai: 'Durango, gustura'



bozketan. Erdiak baino gehiagok beste logo bat zuten gogoko: Santa Anako arkuagaz egindako bat. Baina, herritarren iritzia %30eko balioa zeukan, eta gainontzeko sektore guztietan *d* etzana izan zen garaile.

Dendak Bai elkarteko Guillermino Oarbeaskoa ere egon zen aurkezpenean. Elkarterako logoaren aldaera bat eratu dute, eta turismorako leloa ere bai: *Durango, gustura*. Promozioan durangarrek izango dute protagonismoa, eskuagaz *d* letra etzaren keinua eginda.

PSE-EEren kritika

Hiri Markaren ideia, merkataritza bultzatzeko PERCO mahaitik irten zen. PSE-EEko Pilar Riosen esan du, mahaiaren dinamizazioa eta markaren diseinua enpresa berari adjudikatu ziola gobernu taldeak: Iker Research and Consultancyri. Markarena, publicitate bako kontratu negoziatu bidez egitea kritikatu du. Guztira, 50.000 euro jaso ditu enpresak, Riosen arabera. Bere ustez, diru hori guztia aurreztu zitekeen: "Merkatarien elkarteak, bere teknikoekin lanak egitea proposatu zuen, eta udalarentzat ez luke kosturik edukiko".

> GARAI

Wi-Fi sistema ipintzeko urratsak egiten dabil udala

> M.O.

Garaiko Udalak Internet zerbitzua ipini gura du herri osoan zehar, Wi-Fi uhin sistemaren bidez. 2011n martxan ipinitako egitasmoa da hau, eta gaur egun, urratsak egiten dihardute. Lehenengo, herrian zelako kontsumo egongo litzatekeen aztertu zuten, zerbitzua behar horretara egokitzeko. Horregatik, 2011n eta 2012an proba epean egon zen zerbitzua, doan. Lanak amaitzerakoan, baina, erabiltzaileek izena eman eta ordaindu egin beharko dute.

Plazan, frontoian eta kultur etxean badago martxan seinalea, Gontzal Sarrigotia alkateak adierazi duenez. Santa Katalinan oraintsu ipini dute beste antena bat, eta Goierrri auzorantza zabaldu gura dute orain. Berez, hamar antena ipintzeko aukera daukate, baina posible da zazpigaraz ere beharrezana betetzea.

Kurutziaga ikastola garaile Izenaduba basoko lehiaketan

Saritutako bideoa sortu duten gazteek Mungiako Olalde aretoan jaso zuten saria, joan zen zapatuan

> MARKEL ONAINDIA

Mungian dagoen euskal mitologiaren parkean, Izenaduban, Kurutziaga ikastolako gazteak izan dira garaile. Parke hori Olentzeroren etxea legez ere ezaguna da, eta hain zuzen ere, Olentzerogaz lotutako lehiaketa bat ipini zuten martxan bertan. Ikastetxeetan garatu beharreko txapelketa honetan, ikasleek Olentzerori eskaera egin behar zioten, edo-

ta Olentzerori buruz daukaten ideia plasmatu. Hori, bideo baten bidez adieraztea izan da helburua. Bada, epailek esan dute durangarrena izan dela onena. Ondorioz, 500 euroko saria eskuratu dute.

Bideo lehiaketak arrakasta izan duela esan dute antolatzaileek, eta horregatik, sari banaketa ekitaldia egin zuten zapatuan, Mungiako Olalde aretoan.



Kurutziagako gazteak saria jasotzen.

Europa osoko Jesuitak ikastetxeko ordezkariak Durangon izan dira

Loiolan egindako Europako kongresuaren barruan, Durangoko ikastetxea bisitatu dute



Arrupe Aretoan eman zituzten ikastetxeko proiektuen gaineko azalpenak.

> JOSEBA DERTEANO

Astehelenean egunera Europako Jesus Konpainiako Ikastetxeetako zuzendari ordean kongresua egin dute Loiolan. Kongresu horren barruan, atzo, Durangoko Jesuitak ikastetxeko azpiegiturak bisitatu eta bertan aurrera errotan dituzten proiektuen berri izan zuten. Guztira, Europa osoan (Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua...) jesuiten

ikastetxeetako 102 ordezkari inguru batu ziren.

Lehenengo, hamar minutuko meza eman zuten Jesuiten elizan. Ondoren, Durangoko Jesuitak ikastetxeko zuzendari Isabel Kanpanagak eta Izaskun Oregi irakasleak ikastetxearen historiaren eta proiektuen gaineko azalpenak eman zituzten Arrupe aretoan. Azkenik, Kurutziaga Hotelean bazkaritara batu ziren.

> OTXANDIO

Korrika prestatzeko batzordea sortuko dute

> JOSEBA DERTEANO

Bi urterik behin AEK-k antolatzen duen Korrika ekimenaren aurten martxoaren 20an igaroko da Otxandiotik. Egun horri begira dena prest egon dadin, aurretiko lana egin behar da herrian (aurkezpene egin, materiala eta

Gaur, 19:00etan, Andresa Landan batzarra egingo dute, eta herritar denei zabalik dago

kilometroak saldu, bazkari herrikoia prestatu, besteak beste), eta hori guztia prestatzeko, Korrika Batzordea eratu dutela Otxandion jakitera eman dute.

Horrela, gaur, arratsaldeko 19:00etan, batzarra deitu. Andresa Landan jarri dute hitzordua: "Parte hartu gura duten herritar denentzako zabalik dago, lanak denon artean banatuta hobeto iristen direlako", adierazi dute Otxandioko Udaleko euskara batzordeko ordezkariak.



Ondorengo galderaren erantzuna badakizu...

Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu

Cafés Baqué produktuen otzara... zuretzat!



**Galdera: Zelan deitzen da
Berbaro euskara elkarteko
kudeatzaile berria?**

**Zure datuak eta erantzuna
helbide honetara bidali**



**zozketa@anboto.org edo
Bixente Kapanaga 9-lurreta**

> ZALDIBAR

Arkitekto eta aholkulariaren dimisioa eskatu du EAJk

Eztabaida bizia sortu zuen haurreskolako lanen egoerak, udalbatzarrean. Udal arkitektoaren eta hirigintza aholkulariaren dimisioa eskatu du EAJk

> ITSASO ESTEBAN

Joan zen egueneko udalbatzarreko galdera eta eskarien artean ateratu zuen EAJk eskolako obraren gaia. Gobernu taldeari

kudeaketa “oso txarra” egotzi eta udal arkitektoaren eta hirigintza aholkulariaren dimisioa eskatu zuten jeltzaleek. Batzar aretoa bete-beteta egon zen, eta

ordu erdi inguruan jardun zuten Bilduko eta EAJko ordezkariak gaiari buruz eztabaidan.

Joan zen udaberriaren Espainiako gobernuak ezarri zuen

Aurrekontuen Orekarako Legeak behartuta, haurreskola egiteko prozesu guztia azkartu egin behar izan zuen Bilduk. Abendutik aurrera soberakina zorrak kitatzera bideratzera derrigortzen ditu lege horrek udalak, eta beraz, haurreskolako lanak aurrekusi bezala soberakin horregaz ordaintzerik ez du izango udalak.

Abendua ailegatu zen, eta Arantza Baigorri alkateak asteon azaldu duenez, “Jaurleriaren dirulaguntza, URA Agen-

tziaren txostena, dirua, eta aurrekontuan sartzen zen enpresa bat bageneuzkan ordurako”.

Obraren lizitaziora, baina, ez zen enpresarik aurkeztu. Lizitazio prozesu horren kontra helegitea aurkeztu zuen EAJk, “irregularitasuna” salatuta. Lizitazioan akats administratibo bi egin izana onartu du gobernu taldeak: “Horrela ezin genuen aurrera egin, eta horregatik ez dugu lortu gauzak epe barruan egitea”, dio alkateak.

Irtenbide bila

Geldi dago haurreskolaren proiektua. “Baina ez ahaztuta”, alkatearen berbetan. Aldundia-gaz eta Jaurlearitza-gaz irtenbidea bilatzen dihardute, alkatearen berbetan. Iazko aurrekontuaren likidazioa jakin arte, “hamar egun barrura arte, ezin dugu pausorik eman”, dio.

Udalaren 900.000 euroko inbertsioa eskatuko duen eskolako proiektua berririo lizitaziora ateratzea da udal gobernuaren asmoa. Proiektua zelan finantzatu aztertzen dabilte dio alkateak: “Azken atea itxi arte, egin beharrekoa egingo dugu eskolako proiektua aurrera ateratzeko, izan ere, arazoa gero eta handiagoa da: Lehen Hezkuntzako erakinean ere espazio arazoak izango ditugu laster”.



Euskara Biziberritzeko Plana aho batez onartua

Udalaren euskararen normalizaziorako jarduna gidatuko du 2013tik 2016rako plangintza honek

> I.E.

Aho batez onartu zuten egueneko udalbatzarrean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren 2013tik 2016rako plangintza estrategikoa, eta horregaz batera, urte honetarako kudeaketa plana ere onartu zuten. Datozen ur-

Kudeaketa plana ere onartu zuten udaleko lau alderdiek, joan zen egueneko udalbatzarrean

teetan udalak euskararen normalizazioan egingo duen lanaren norabidea zehaztuko du planak. Udazkenean egin zituzten herri batzarretan zehaztu zituzten plangintza horren oinarriak.

Alkatearen soldata

Arantza Baigorri alkateak Gabonetan aparteko ordainsaria jaso izana gogor kritikatu zuen udalbatzar horretan, EAJk. Galdera eta eskarien atalean mahai-gaineratu zuten gaia, eta “erabaki legal baina ez etikoa” hartzea egotzi zion EAJk alkateari.

> MALLABIA

Ordenagailu bi jarri dituzte erabiltzaileen eskura

Otsailean liburutegiak iBook bat mailegatuko du

Mallabiko liburutegiak ordenagailu eramangarri bi jarri ditu erabiltzaileen eskura. Liburutegian Internet kontsultatzeko (Wi-Fia dago) zein lanak egiteko erabili daitezke. 10-15 urte bitarteko gazteek ordu erdian erabili ahal izango dute. Ordenagailuak erabiltzeko derrigorrezkoa da liburutegiko

txartela aurkeztea. Azaroan jarri zituzten ordenagailuak eskuragarri, eta liburutegiko arduradunek diotenez, oso harre-ra ona izan dute.

Mallabiko liburutegiak otsailaren erdi aldera iBook bat mailegatuko du. Hamabost egunez etxera eroateko aukera izango dute erabiltzaileek.

> DURANGALDEA

Hotzari aurre egiteko, badatoz jai eta mozorro egunak Durangaldera

Bihar iluntzean Surrandi eta Hartzaren konpartsak irtengo du Durangon

> AMAIA UGALDE

Bertan dira inauteriak. Gaur bertan, hainbat eskola-ume ibiliko da mozorrotuta. Berrizen eta Abadiñon, esaterako, eskolek jaialdiak antolatu dituzte. Mallabian ere, barikua mozorrotzeko eguna da; urdinez janzteko deia egin dute.

Hala ere, ekitaldi nagusiak zapatuan eta martitzenean izango dira. Azken urteotako ohiturari jarraituz, bihar iluntzean, Durangon, Surrandi eta Hartzaren

konpartsak irtengo du Kriskitinek antolatuta. Aurten, gainera, Jaizalek, hainbat herritarrekin, Durangoko inauterien musika-gaz CDa grabatu du.

Berrizen, koadrilen mozorro lehiaketa eta jaitziera izango dituzte, eta gero, afari herrikoia

Zapatuan, baita, Abadiñon kalejirak egingo dituzte Zelaetan eta Traña-Matienan, eta Berrizen eta Elorrion mozorro lehiaketak antolatu dituzte. Berrizen, gainera, koadrilen jaitziera eta afari herrikoia izango dituzte.

Martitzenean, umeen jaialdia eta mozorro lehiaketa izango dituzte Zaldibarren. Elorrion ere ikastetxe guztiak batuko dira goizean jaialdirako, eta arratsaldean Luhartzek joko du.

> ATXONDO

Baserri gunetan 201 postontzi ipiniko dituzte

Posta zerbitzua azkartzea lortu gura dute

> J.D.

Herriko beharrianak jakiteko udalak egindako auzo batzar denetan kezka komun bat azaleratu zen: baserriarrek posta zerbitzu azkarragoa eskatu zuten, eta herrigunekoek, posta bulegoko orduak, hau da, harreta gelan egoten diren denbora, handitzeko beharra azaldu zuten. Arazoa konpontzeko, udalak 31 postontzi unitate

(201 postontzi guztira) erosteko eskaera egin du. Postontziak ipinita, postariak gunen bateratuetan utziko lituzkete gutunak. Horrela, postariak zerbitzua azkarrago egin ahalko dute; ondorioz, bulegoan denbora gehiagoz egon ahalko dira. Udalak postontziak auzolanean ipintzea proposatuko du martxoan egingo dituzten auzo batzarretan.

> ELORRIO

Entesporti ordainketa irregularrak egitea leporatu dio EAJk aurreko gobernuari

Entesport enpresari 109.000 euro itzultzeko eskatzea onartu du udalak; Niko Morenok dio ordainketak prozedura administratibo guztia pasatu zuela

> JONE GUENETXEA

Elorrioko Udalak 2006an esleitu zion Entesport enpresari Kirol Etxearen kudeaketa. Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) dioenez, 2010ean dirua galtzen zebiltzala argudiatuz udalera jo zuen enpresak. Kudeaketa bertan behera utzi gura zutela jakitera eman zion Entesportek or-

duko Niko Morenoren (ANV) gobernu taldeari. Kontratua bi urtez luzatzea erabaki zuen udalak, eta enpresari galeren %16,25 ordainduko ziotela, urtero jasotzen zuten 150.000 euroko kanoanaz aparte. Kanpoko auditoria batek galerak neurtuko zituela adostu zuten.

EAJk kritikatzeko duenez, udalbatzak adostutakoaren arabera, 2011n 50.000 euro inguru ordaintzea onartu zuten. "Niko Morenok alkatetzako erresoluzio bidez, beste 52.000 euro bideratu zituen Entesportera. Galerei beharrezan gastuei aplikatu zieten portzentajea eta hortik

dator irregulartasuna, hori ez baita udalak adostu zuena". Mujikak dioenez, Kirol Etxeko kudeaketa lizitatzen hasterakoan konturatu ziren aurreko lege-gintzaldian "gertatutakoak".

Morenoren erantzuna

Niko Moreno alkate ohiak azaldu duenez, ordainketa guztiz erregularra izan zen eta prozedura administratibo guztiak bete zituen. Kontu-hartzaileagaz, idazkariagaz eta aholkulari juridikoagaz hartu zuela erabakia gaineratu du. "Maltzurkeria hutsa da ordainketa irregularra izan zela esatea".

Morenok alkatetzako erresoluzio bidez beste 52.000 euro bideratu zituela Entesportera dio EAJk



Elorrioko Kirol Etxearen irudia.

Etxegabetze bat saihestu da udalari eskerrak

Gobernu taldea banketxeekin batzartzen dabil, etxegabetzeak direla-eta egoera jarraitzeko

> MARKEL ONAINDIA

Elorrioko Udala herriko banketxeekin batzartzen dabil, etxegabetzeak direla-eta egoeraren jarraipena egiteko. Lan horren bidez, udalak etxegabetze bat saihestu du, Joseba Mujika alkateordeak eguaztenean egin-

Batzar batean etxegabetze prozedura bat martxan jarriko zela jakin zuten udal ordezkariak

dako ohiko osoko bilkuran azaldu zuenez. Antza denez, batzar batean etxegabetze prozedura bat martxan jarriko zela jakin zuten gobernu taldeko ordezkariak, eta euren esku-hartzeari eskerrak, ez da aurrera joan. Mujikak esan zuen jarraipen lan horri eutsiko diotela, beste kasuren bat gertatuko balitz neurriak hartzeko.

Etxegabetzeen inguruko mozioen eztabaidan irten zen gaia. Bilduk, halako neurrien berri aurretik ematea eskatu zion EAJri.

> BERRIZ

Eguaztenean 14 urte beteko ditu Hiltegixek

Urteotako ibilbidearen argazki erakusketa, antzerki borroka eta kontzertuak antolatu dituzte

> AMAIA UGALDE

Berrizko hiltegi zaharra gazte- bihurtu zutela 14 urte beteko dira eguaztenean, eta hori ospatzeko, egitaraua antolatu dute gazte asanbladako kideek. Eguaztenean bertan, txokolata-

dak pizza masak ipiniko ditu, eta bakoitzak gura dituen osagaiak eroango ditu pizzan afaltzeko. Afalostean, inprobisatutako antzerki borroka egingo dute talde bik. Aurreko urteetan arrakasta handia izan du saio horrek.

Zapatuan, Barakaldoko Porco Bravo eta Bilboko B.C. Bombs taldeen kontzertuak izango dituzte

Zapatuan, Barakaldoko Porco Bravo taldeak rock and roll kontzertua eskainiko du 22:00etatik aurrera, eta euren ostean, B.C. Bombs bilbotarrek punk rock doinuak joko dituzte.

Urteroko hitzorduak

Urteekin, hainbat ekitaldi finkatu egin dira gaztetxeko agendan. Azaldu dutenez, laster ikastaro bat eta martxoaren 8rako egitaraua prestatuko dituzte. Udaberri Fest antolatzen ere hasiko dira.

Bariku gauean afari berezia izango dute Hiltegixen: pizza inprobisatuak. Gazte asanbla-

Otzaretan sasoiko barazkiak eta bakoitzak eskatutako produktu estrak jasotzen dituzte. Hileko azken eguaztenean baserriarrek faktura pasako dute, eta erabiltzaileek lehen eguaztenean ordainduko dute.

Bederatzi familia hasi dira otzarak hartzen. Hasteko, hiru hileko proba egingo dute eta taldea finkatu ahala, egitasmoa Berrizko baserriarrei zabaltzeko asmoa dute. Interesa edukiz gero, okakontsumotalde@gmail.com helbidea daukate.

Eguaztenean otzarak banatzen hasi da kontsumo taldea

Bertoko produktuekin betetako bigarren otzara jaso dute asteon Oka kontsumo taldeko kideek. Eguaztenean ipini dute hitzordua otzaren banaketa egiteko, eta Berrizko antolategi zaharrean batzen dira, 19:30etik 20:30era.

Nanukeko beharginei arrazoia eman die epaileak

LAB sindikatuak dioenez, enpresak murrizketa bidez "kendutako" dirua bueltatu beharko die

> MARKEL ONAINDIA

Langileek zuzendaritzaren aurkako auzia irabazi dute Nanuken. LABek adierazi duenez, 2010eko urtarriletik enpresagaz akordio bat lortu guran egon da langileen komitea: "Enpresa hi-

tzarmen bat adosteko eta enpresak argudiatzen zuten likidezia falta konpontzeko". Azkenean, ordea, 2012ko urriko nominan soldata jaitsieraren berri izan zuten langileek. Jaitsiera aplikatu diete harrezkero.

Akordioetara heldu ezinda, abenduan epaiketa eduki zuten, eta asteon izan dute sententziaren berri: zuzendaritzak ez du dagokion prozedura errespetatu, eta beraz, baliogabetu egin dute soldata jaisteko neurria.

Zuzendaritzaren berbetan, auzia aspektu formalengatik irabazi dute langileek: "Horrelako erabakiek enpresaren bideragarritasuna arriskatzeko dute". Akordioak lortzeko prest egon direla azaldu dute, eta ez zutela gura auzia hainbeste luzatzea.

Bizikletaren erabilera bultzatzeko plana idazten

18.000 euro bideratuko ditu udalak plana idazteko; horietatik, 9.000 EEEK finantzatuko du

> J.G.

Udalak erredaktatuko duen planaren helburua da, auto eta motorren aldean, bizikletaren erabilera bultzatzea. Bizikleta mugikortasun alternatiba izan dadin, "gune seguruak" eraiki

gura ditu udalak. Ana Otadui alkatearen berbetan, "bizikletak ibilgailu ixil, garbi, karbono emisio gabeko, merke eta sostengagarri moduan duen potentziala defendatu nahi dugu". Biztanleriari ingurumen eta kutsadura

akustiko txikiago batez gozatzeko batera, bide segurtasun eta herri espazioaren erabilera handiagoa gura dute, berotegi efektuko gas-emisioa murriztuta.

Bilduren iritzia

Proiektu honen inguruan Bilduk adierazi duenez, "asko pozten gara dirulaguntza hau jasotzeaz, baina ikaragarri harritzen gaitu aurrekontuetan Bilduk helburu honekin egindako proposamerani EAJk kontra bozkatu izana".

> DURANGALDEA ASTEON**Barcenasen ustezko kontuetan Durango ageri da**

El País egunkariak argitaratutako PPko diruzain ohiaren ustezko kontuetan Durangori buruzko erreferentzia bat ageri da. 2000. urteko uztaila da, eta hitzez hitz 'Cancelación Cto. Concejales Durango' jartzen du. Ondoa, 5,5 milioi pezetako kantitatea dauka idatzita.

Behargin bat hil da Layde enpresan, bihotzekoak jota

Abadiñoko Layde enpresan 56 urteko langile bat hil zen martitzenean, bihotzekoak jota. Aldageletan hilk topatu zuten lankideek. Durangarra zen, eta ELAko delegatu ohia zen Layde enpresan. Lankideek haren oroimenezko kontzentrazioa egin zuten eguaztenean enpresaren aurrean.

'Deskonkista kolektiboa' Asisko Urmenetaz

Elorrion izango da gaur Asisko Urmeneta marrazkilaria, *Deskonkista kolektiboa* izeneko hitzaldia ematen, 19:30ean, Ateneo aretoan. XII. mendearen hasieran Nafarroan egondako aldaketa eta mugimenduek konkistarekin duten loturaz jardungo du Urmenetak, Txintxirri ikastolak antolatuta.

Elorrion abortuaren legea murriztearen kontrako mozioa onartu dute

Espainiako gobernuak abortoa arautzen duen legea aldatzeko asmoa agertu duela eta, Lilikak eta Txoko Feministak mozioa aurkeztu dute Elorriko Udalean. Mozioan azaldu dutenez, "erreforma horiek Elorriko emakumeen askatasuna urratuko lukete". Mozioa onartu egin dute, EAJren eta Bilduren botoekin. Alderdi Popularreko zinegotziak kontra bozkatu du.

> IZURTZA**Iaz egin barik geratutako proiektuak helburu nagusi 2013ko aurrekontuan**

Aurtengo aurrekontuen zenbatekoa iazkoa baino %8,8 baxuagoa da

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteko udalbatzarrean hasierako onarpena eman zuten 2013ko aurrekontuei. Gobernu Taldeko (Bildu) botoekin onartu zituzten, eta EAJ abstenitu egin zen. Aurtengo zenbateko osoa iazkoa baino %8,8 (67.700

Eleizalde auzoan ur hornidura sarea eraberrituko dute 30.000 euroguz

euro) baxuagoa da: 653.658 euro guztira. Besteak beste, Aldundi-ko Udalkutxari bueltatu beharreko diru kopuruagatik gertatu da jaitsiera hori.

Inbertsioei bideratuko zenbatekoa %14 baxuagoa da aurten. Zenbatekorik handiena, iazko



Garauntza inguruan etxebizitzak egiteko asmoa aurrera eramateko 105.000 euro bideratu dituzte.

aurrekontuetan aurreikusi bai, baina azkenean gauzatu ezin izan zituzten proiektuetara bideratu dituzte. Esaterako, Garauntzako etxebizitzaren asmorako 105.000 euroko diru atala sortu dute. Iaz ere, ia diru atal bera bideratu zuten, baina arau subsidiarioetan egin beharreko aldaketa batzuek atzeratu egin dute proiektua. Eleizalde auzoan ur hornidura sarea eraberritzeko 30.000 euroko atala sortu dute.

Horrez gainera, jubilatuen lokaleko komunak konpontzerako 10.000 euro bideratu dituzte.

Jubilatuen lokaleko komunak konpontzerako bideratu dituzte 10.000 euro; laster hasiko dira lanak

Konponketak egingo dituen enpresa kontratatu dute, eta lanak laster hasiko direla azaldu du Luis Ballarin alkateak.

Inbertsioen atalean, Arbizolea industriagunean udalaren jabetzakoa den lokal bat zarratzeko, 15.000 euro ere aurreikusi dituzte aurten.

> IURRETA**Akordio batera heldu eta lanean dira Odi-Bakarren****> AITZIBER BASAURI**

Otsailaren 1etik lanean dabil-tza Odi-Bakar enpresako langileak, zuzendaritzagaz akordio bat lotu ondoren. Kategoriararen arabera, soldata jaitsiko zaie langileei urte bian. Hala ere, 2015ean eta 2016an ordain-sari bereziak jasoko dituzte, "urte hauetan langileak egingo ahalegina eta erakutsitako konpromisoa konpentsatuguran", azaldu du LAB sindikatuak. Bestalde, urte bi hauetan ez da kaleratze traumatikorik egongo, ez arrazoi ekonomikoengatik, ezta produkzio arrazoiengatik ere. Espainiako Lan Erreformari aurre egiteko premiazko neurriak jasotzen dituen lan hitzarmena ere sinatu dute.

Independienteek eta LABek sinatu dute akordioa (ELA ez du sinatu) langile asanbladaren ia %90aren babesagaz. 25 egun egin dituzte greban 40 langilek (lantaldean 55 dira).

> MAÑARIA**Hirigintza ikuspegitik herria zelan antolatu hausnartzen**

Prozesu parte-hartzailea garatuko dute

> MARKEL ONAINDIA

Mañaria etorkizunean zelan eraiki eta antolatu. Hori aztertu eta erabaki gura du udalak Hiri

Antolamendurako Plan Orokorren bidez. Hori idatzi aurretik, ordea, herritarrekin prozesu parte-hartzailea garatuko du-



Lurraren erabilera ekonomia iraunkorra bultzatuz arautzea dute helburu.

te. Udalak enpresa bat kontratatuko du prozesu hori diseinatzeko. 59.000 euroko aurrekontua daukate, eta udaberrian hastea itxaroten dute, Endika Jaio alkateak esan duenez.

Joan zen barikuan, ohiko udalbatzarrean erabaki zuten egitasmoaren esleipenari ekitea. Jaiok dio, etorkizunera begira, proiektu garrantzitsuenetakoa dela HAPO, eta partaidetzari indarra eman dio. "Herri osoa arautzen da; beraz, herritarrek badaukate zeresana". Etxebizitzak, industriaguneak, kirol guneak... Arlorik arlo plan berri bat egitea beharrezkoa da Jaio-uren ustez. Izan ere, oraingoak hamar urtetik gora dauzka, eta egungo egoera ekonomikoagaz bat datorren plana zehaztu gura dute. Lurraren erabilera ekonomia iraunkorra bultzatuz eta ingurugiroa errespetatuz arautzea dute helburu.

> ABADIÑO**Eskolako jolasgunea handitzeko lanak hasi dituzte Traña-Matienan**

Aparkalekuak kendu eta haurreskola ondoko jolasgunea handitzeko lanei ekin diete

> ITSASO ESTEBAN

Traña-Matiena herri eskolako jolasgunea handitzeko lanei ekin die Abadiñoko Udalak azken urteetan aparkaleku bezala erabilitako futbol zelai zaharrean. Probisa enpresak, 115.572 euroko aurrekontuagaz dihardu lanak burutzen.

Joan zen asteko udalbatzarrean atera zuen Bilduko Saioa Zuazubizkar zinegotziak Matienako eskolako jolasgunea handitzeko proiektuaren gaia. Izan ere, urteotan aparkaleku bezala erabilitako gunea esko-

larentzako atonduta, Traña-Matienako aparkaleku arazoaren aurrean behin-behineko irtenbide bezala aurkeztu zuena alboratu dute. Hain zuzen, aparkaleku faltari zer irtenbide emango zaion galdetu zuen Bilduko zinegotziak.

Gobernu taldea Traña-Matienako aparkaleku faltari soluzioa emateko hiru aukera lantzen dabilela esan zuen alkateak: aparkalekuak San Blas hotelaren, tren geltokiaren edo Material Aislante enpresaren inguruan atontzea.

MAITE BERRIOZABAL | Berbaroko kudeatzaile berria | 25 urteko berriztarra


“Eremu askotan gabilta euskararen alde lanean; indarrak batu behar ditugu”

Askok bertso saioetan gaiak jartzetik ezagutuko dute Maite Berriozabal. Berbaroko kudeatzaile lana hasi du, eta “erronka eta aukera handia da” berriztarrarentzat. Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi zituen, eta orain arteko lanetan euskalgintza arloa sakondu da

>AMAIA UGALDE

Lehior Elorriagaren lekukoa hartu eta Berbaroko kudeatzaile lana hasi du Maite Berriozabalek. Unibertsitatean ibili da azken hileotan hizkuntza gutxituen eta komunikabideen inguruko ikerketak egiten. Berbaroko erronka berriari heltzeko gogoz dago berriztarra.

Zelako itxura hartzen diozu lan berriari?

Erronka berri bat da niretzako. Euskara beti eduki dut bizitzaren erdigune, eta orain arteko nire lanean euskara lotune izan dela esan nezake. Berbaro arlo honetan erreferente bat da Durangalde mailan, eta esango nuke Bizkaia mailan ere badela erreferente. Niretzako aukera handia da bertan hastea.

Zeintzuk izango dira zure eginkizunak?

Batez ere, Berbarok dauzkan zerbitzuak kudeatuko ditut: gazteria arloa, diru kontuak... Durangoko Udalaren Euskara zerbitzua ere hor dago. Proiektu horien gainean egon, eta premiei

“

Euskarari laguntzeko beste hizkuntza gutxituetan zertan dabilzan jakin behar dugu”

“

Orain arte Berbarok momentuan momentuko beharrezanean erantzuten jakin duela uste dut”

aurre egiten ikasi beharko dut. Nire lana lantalde bat kudeatzea izango da, batez ere.

Berbaro barrutik ezagutzen hasi zara. Zer nabarmenduko zenuke bere egitasmoetatik?

Berbarok lan asko egin du aisialdi eta gazteriara begira. Orain badago Gurean kanpotik etortzeko umeei euskara errefortzua emateko egitasmoa, badaude motibazio tailerrak... Gizarteko premiei erantzuteko zerbitzuak dira. Berbarok momentuan momentuko beharrezan detektatzen eta erantzunak topatzen jakin duela iruditzen zait.

Unibertsitatean zelako lanetan ibili zara?

Master bat egin, eta gero ikerketa batzuetan ibili naiz lanean. Ikerketak egiterakoan, argi ikusi dugu euskarari laguntzeko beste hizkuntza gutxituetan zertan dabilzan jakin behar dugula. Ikerketa batean munduko hizkuntza gutxituetan emititzen duten telebisten mapa egin dut. Azken finean, hizkuntza komunitate bat osatzeko, espazio fisikoaz gainera, komunikabideek

sortutako espazioak ere eragiten du. Beste ikerketa batean, Euskal Herriko tokian tokiko telebisten emisioak aztertzen ere ibili naiz. Lizentziak banatu zirenean eskatzen ziren baldintzak bete dituzten edo ez aztertu dut.

Bertsozale elkarteetan zabilta, EMUNen ibili zara... Zelan sumatzen duzu euskalgintzaren osasuna?

Euskararen borroka beti izan da mundu txiki batean egitekoa, eta euskararen motibazio horrekin sortutako elkarte asko daude. Sarritan, agian ez dugu gure arteko koordinazioan asmatzen. Durangon bertan, modu batera edo bestera euskara oinarri daukaten hainbat elkarte daude, eta batzuetan egunerokotasunak gaintzen gaituelako, ez gara mugitzen gure artean batasuna lortzera eta denok batera indarra egitera.

Duela gutxi Bizkaiko euskarrekin elkarrekin topaketan egon zara. Zer moduz?

Topagunea badabil mapa bat egin guran, orain artekoa zahar-

kituta dago eta; Durangaldean egondako hainbat elkarte agertzen ziren han. Batzuetan langilerik ez badago, kostatu egiten da elkarteek aurrera egitea. Transmisioaren arazoa ere badago hor: zenbateraino lortu dugu belaunaldi berriek lekukoa jasotzea? Gizarteko aldaketek asko eragin dute horretan; ez bakarrik krisi ekonomikoak, krisi sozialak ere bai.

Berbarok, Plateruenak eta Anbotok zuztarretara jo eta elkarlanean jarduteko prozesua hasi dute.

Badakit hausnarketa batzuk egon direla, eta hori dela-eta, batzargune batzuk sortu direla. Berbaro, azkenean, zer punturaino da Pinondo Etxean kokatzen den euskara elkarte hori? Hori bada, baina Plateruena ere Berbaro da, eta Anboto ere bai. Nire ustez, positiboa da indar metaketa eta norabide berean apustu egitea. Sorburuetara bueltatzeak ekartzen badu garai bateko motibazioetara eta identitate horretara bueltatzea, positiboa da. Elkarrengandik asko ikasi eta aprobetxatu genezake.

Iritzia

GUTUNAK  gutuna@anboto.org
eguziteneko 17:00ak arteko epea

Elkarte euskaltzale hori, agur ferdi

Jakingo duzunez, aurten Korrikaz gozatzeko aukera izango dugu berriz ere.

2013ko martxoaren 14an Andoaindik abiatuko da Korrika 18, martxoaren 24an Baionara heltzeko.

Eta hori posible izan dadin, ehunka pertsonen egiten dugu, aurretiaz, hainbeste lan.

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak eta anitzak dira. Gaurko gutun honen bidez, gurekin bat egin dezazun eskatzera gatozkizu, horretarako otsailaren 20an, arratsaldeko 19:00etan, Durangoko Abarrak AEK euskategian egingo dugun Korrika batzordearen bigarren deialdira etorritz.

Bertan, Korrika 18ren nondik norakoak eta gure herrian egingo direnak ezagutzeko aukera izango duzu, eta horrela nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzeko ere bai. Horrez gain, herrian egin beharreko lanak zerrendatu eta banatuko ditugu. Jakin badakigu denok ez ditugula aukera berdinak gure ekarpenak egiteko, eta horregatik, hain zuzen ere, konpromisorik gabe etor zaitezzen eskatzen dizugu. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta inolako aukerarik izango ez bazenu ere, Korrika geure herrian izango dena ezagut eta zabal dezazun da gure nahia.

Korrikak hasiera-hasieratik aldarrikatu duen legez, Korrikaren helburuak bete daitezzen guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezko. Denon parte-hartzearekin lortuko dugu Euskal Herri euskalduna eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izango dugu euskararen lekukoa Andoaindik Baionaraino. Ahalegin horretan zeure laguntza estimagarria izango dugulakoan, beste barik, hurrengo 20ra arte.

Durangoko Korrika

EAJk bentiladorea martxan ote?

Aste honetan DEIAk zabalduko informazioaren haritik, zeinaren bitartez "ordainketa irregular" baten erantzule izatea leporatzen didaten, gauzatxo batzuk komentatu nahiko nituzke:

a.- Udalbatza gaueko 9retan bukatu izana eta biharamunean egunkari horrek gaia portadan ekartzeak argi adierazten du EAJren gobernu taldeak zelan erabiltzen duen desinformazioa, berari zuzenduriko begiradak desbideratzeko asmoz edo.

b.- Inolako ordainketa irregularrik ez dela egin baieztatu dezaket, izan ere, 50.000 euroko likidazioa udalbatzatik pasa eta gero, eta, enpresaren erreklamazio baten ondorioz, diru-artekaria eta idazkariak elkartu ondoren, 58.000 euroko kreditua egitea erabaki zen. Dena erregularra, araututa eta lege barruan. Informazio eza leporatzen didate bai, baina ez dute esaten 10 egun pasa eta gero Udaletik kanpo geratu nintzela, ezta denbora honetan guztian inork ez didala ezer galdetu edota informazioa eskatu ere, nahiz eta ni edozer gauza argitzeko prest azaldu.

d.- Gezurra dela DEIAk iradokitzen duena, hau da, idazkariak ordainketa horren aurkako txostena egin zuenik.

e.- Nik baimendutako ordainketa guztiak zegozkien prozeduraz eginak izan zirela. Beti.

f.- Gure kasuan erabilitako irizpide berbertsuekin, 2012an oraingo gobernu taldeak mota bereko ordainketa agindu ziola enpresa berberari. Nik agindutakoa irregularra izan balitz, eurek egindakoa beste horrenbeste, baina DEIAk hori aproposo ixiltzen du, edo Elorrioko EAJk nahita izkutuzen du datu hori.

g.- Azkenik, oso une aproposa dirudi honek diru-kontuen erabilerarekin bazterrak nahasteko, eta nahasmen hori interes politiko batzuren zerbitzura jartzeko, baina oker dabilta Ezker Abertzalea praktika irregularrekin nahastea nahi dutenak.

Niko Moreno - Elorrioko alkate ohia

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL BOLINAGA

Bildu



Ba al zenekien?

Inauteri festetan gaude sarturik eta egun hauetan denetariko mozo-roak ikusiko ditugu. Mozorrotuta dagoenean jendea ezagutzea oso zaila izaten da eta mozo-roa kentzean oharren gara benetan nor den aurrean daukaguna. Politikak ere badu honetan antzik, jende aurrean irudi bat agertzen baitute batzuek eta gero konturatzen gara benetan mozo-roa bat baino ez dela.


Horrela Durangoko udal gobernu taldeak esperientzia izatearen eta gogoz lan egiten dutenaren mozo-roa jantzen dute jende aurrean agertzeko. Baina, ba ahal zenekien ...

... PP eta PSOE alderdiak izan ezik beste alderdien bozkei esker, Durangotik Guardia Zibila joan eta kuarteleko lurzorua udalaren jabetzetara pasatzea onartuta daukagula. Itxaroten gabilta.

... gure ardatzetako bat den diagnostiko parte hartzaile bat egiteko (herritarren iritzia jakiteko gai desberdinen inguruko galdeketa horren arabera herrian zer beharizan dagoen jakiteko) 40.000 euro onartuak daudela. Itxaroten gabilta.

... PP izan ezik beste alderdi guztien bozkei esker, etxegabetzeak ekiditeko mozio bat onartua dagoela. Non udala bitartekari agertuko den herritarren eta bankuaren artean, horretarako udalak herritarrek egoki informatuko dituelarik. Martxan al dago? ... "Lokalak" erabiltzen dituzten gazteek gobernu taldeari eskatu ziotela lokalen inguruko ordenantza bat egitea elkarrekin, gobernu taldeak aurkeztu zuena astakeriatzat jo zutelako eta gobernu taldeak onartu zuela. Zergatik ez dira beraiekin elkartzen, itxaroten dabilta.

Hau guztia izanda, azken "plenoa", 10 minutuko, gairik gabekoa izan zen. Hori da PNV-ren esperientzia eta lan egiteko gogoia. Hau ez gertatzeko herritarrok jarraipen handiagoa egin behar dugu denon artean. Lagunduko diguzue PNV-ri mozo-roa kentzen?



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko otsailaren 8a
11. urtea - 488 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> ELKARRIZKETA

“Gure herriaren egoerak sorturiko amorruak narama artea adierazpide bezala erabiltzera”

Otsailaren 15era arte, Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai ipini ditu Mohamed Moulud Yeslem artistak Saharari buruzko koadroak

Zelan heldu zarete zu eta zure artelana Elorriora?

Saharako kanpamentuetan eza-gutu nuen Gotzon Garaizabal artista, eta lagun egin ginen: eskolatan umeekin pintura lantzen ibili ginen. Horrela sortu zen erakusketa hau egiteko ideia, Lajwad elkartearen eta udalaren laguntzagaz. Irakasle saharauiak arte plastikoaren alorrean formatzeko egitasmoa ere badaukagu buruan.

Zer moduz joan zen inaugurazio ekitaldia?

Oso gustura egon ginen: nire lanarekiko eta gure herriarekiko interes handia erakutsi zuen bertan batu zen jendeak.

Garrantzitsua da Elorrioko erakusketa hau bezalako ekimenak abiatzea?

Bai, oso. Sahara laguntzeko Euskal Herritik bidaltzen diren janari karabanak oso inportanteak diren bezala, laguntza humanitario horretaz gainera, Saharako herriaren alderdi kul-

turala laguntzea ere oso oso inportantea da. Izan ere, orain kanpamentuetan daukagun bizimoduak ez da gure jatorrizko bizimoduak. Egoerak derrigortu gaitu horrela bizitzera, eta oinarrizkoa dugu gure kultura ikertu eta berreskuratzeko lan egitea.

“

Nire lanarekiko eta gure herriarekiko interes handia erakutsi du Elorrioko jendeak”

Zer helburuz sortzen dituzu zure artelanak?

Gure herriak bizi duen egoerak sorturiko amorruak narama artea adierazpide bezala erabiltzera: nik ez dut inor hil nahi, erai-ki egin nahi dut, bizitza eta alaitasuna landatu gura dut, eta artea darabilt horretarako.

**Zure obra beti dago zure herriagaz lotuta?**

Bai, ia beti dago Sahararekin lotuta: bai gure kultura ezagutzera ematen duelako, bai eta gure arazoari buruz diharduelako. Baina hortik kanpo ere badihardut. Esaterako, udaberri arabiarri dedikatu nion lan bat. Izan ere, uste dut udaberri arabiarren hasiera Mendebaldeko Saharan

“

Askotariko bideak lantzen gabiltza nazioarteari ‘nahikoa da!’ esateko”

gertatu zela. Tunezen baino bi hilabete lehenago hasi zen mugimendua Saharan, nahiz eta komunikabideetan ez zuen ezelako oihartzunik izan.

Kanpamentuetan jaio izanak ere eragiten dio zure obrari?

Saharan jaio nintzen arren, bi urte nituenetik bizi izan naiz kanpamentuetan. Kanpamentuetan ikasi nuen, eta jolasik ez geneukanez, geuk asmatutako jolasekin jolastu nuen umetan bertan. Horrek ohitu gaitu umetatik sortu behar izatera: uste dut horrek umetatik burua zabaltzera eroan gaituela.

Margogintza ez ezik, bestelako arte adierazpideak ere lantzen dituzu, ezta?

Oinarrizko hezkuntza Saharan egin nuen arren, gero Kubara joan nintzen ikastera. Kubatik bueltan hasi nintzen bideo eta argazkigintzagaz ere esperimentatzen, eta hainbat dokumental sortu ditut horrela. Bestetik, Pedro Perez Rosadoren *Wilaya* filman protagonistetako bat izan nintzen. Askotariko bideak lantzen gabiltza nazioarteari “nahikoa da!” esateko: basamortuan ahaztuta eduki gaitu nazioartek 37 urtez, eta gure duintasuna aldarrikatzeko bagabiltza bideak bilatu, asmatu eta sortzen.

Harresiko mina beste lore landatzeko proiektuagaz



Sevillan utzi zituela hainbat koadro kontatu digu Mohamed Mouludek. Autobusean ekarri zituen bere koadroak Elorriora. “Nomada naiz”, dio, barrez. Urtebete baino gehiago darama Saharatik kanpo, bere herriari buruzko margo erakusketak han-hemen antolatzen.

Leongo unibertsitatean dauka, Elorriokoaz gainera, beste erakusketa bat. Sahara bitan banatzen duen harresiari buruzkoa: “2.700 metroko harresiari buruzkoa, pertsonen kontrako 10 milioi minak inguratutakoa, eta 120.000 soldaduk zaintzen dutena”. “Hor gertatzen dena inork ez duela ezagutzen da arazoa”, dio Mouludek. Horregatik darabil artea, “harresi horri

gerra deklaratzeko, eta jendea gaiaz sentsibilizatzeko”.

Harresi horretako pertsonen kontrako mina bakoitzeko lore bat landatu gura du Mouludek harresi horri buruzko beste proiektu batean: 10 milioi lore landatu gura ditu laguntzen dutenen bultzadagaz.

Arte eskola bat eta museo bat sortu zuten Mouludek eta bere kideek Saharan, eta 15 urtez jardun dute bertan neska-mutilei marrazketa irakasten.

Artifariti arte jardunaldia ere antolatzen dute Mouludek eta lankideek: “Jaialdi horregaz, artea giza eskubideen aldeko arma bihurtzea dugu asmoa, eta lortu dugu munduko artista askorengana ailegatzea”.

> MUSIKA

Durangoko Aratusteetako musika CDan kaleratu du Jaizale elkarteak

Inauterietarako sortutako musikak jasotzen dituen CDa aurkeztu zuten Durangoko liburutegian, atza

> **ITSASO ESTEBAN**

Durangoko Aratusteak CDa aurkeztu zuen Durangaldeko Jaizale txistularien elkarteak atzo. Eleder Iturrieta txistulariak, Egoitz Esturo Kriskitin taldeko dantzariak, eta Ane Belaustegi musikariak parte hartu zuten aurkezpenean.

Egileek azaldu dutenez, “eskolei eta Durangaldeko kultur elkartei begira” kaleratu dute, batez ere, CDa. Duela hamar-

kada bat Durangoko inauterietarako propio sortu zituzten hiru abestiak, txistu, trikitixa, soinu, biolin, tronpetak, tronboi eta bombardinoagaz grabatu dituzte CD berrirako. Surrandien eta Hartzaren konpartsaren biharako kalejiran ipiniko dute, CD berrira salgai.

Kriskitin taldeak Surrandien konpartsa lehenengoz kalera atera zuenetik, Durangoko inauterietarako berreskuratzeko ahalegi-

nari doinua ipini diote Jaizale txistulari elkarteak: Tabira Bandagaz batera atera izan dira inauterietan kalejiran.

Eleder Iturrieta txistulariak, Egoitz Esturo dantzariak eta Ane Belaustegi musikariak aurkeztu zuten CD berria

Durangoko hainbat musikari eta letragilek kolaboratu zuten Jaizalegaz 2000 eta 2001 urteetan CD honetan jasotako Durangoko inauterien kanta sortzeko: Jesus Egiguren, Ane Belaustegi, Ander Erzilla, Ixone Aroma eta Unai Iturriaga aritu ziren, beste beste, lanean.

Urtean behin, inauterietan, kalez kale zabaltzen dituzten doinuak urte guztian entzungai izango dira grabazio honi esker.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Barbaro



Indarrez, indarraz

Hirurak aldera abiatu naiz lane-rantz alde zaharretik. Kanean lau katu. Aurreko egunetako euri ja-sa eta haize boladek garbi-garbi utzi dituzte bazterrak. Badirudi bizidunak ere garbitu dituztela. Mañaria errekarren ur-emari uher handiak errekarriak pilatu ditu, indarrez, ibilguaren alde batera Pinondoko presagaien. Ate ondoan, emakume bategen Stop Desahucios kolektiboak egoitza non duen badakidan galdetu dit. Baztertu batzuek badutela Pinondon egoitza erantzun diot, baina etxegabetuen berri-rik ez. Barrenak husteko gogoan antzeman diot eta, belarriak er-ne, entzun dut. Gero, indarraz jardun dugu, indarbideez eta indar-zaleez. Indarrez bidali gaituzte lan bila faroletara, zuhaitz enborretara, hormetara, atarietara; indarrez bota gaituzte eta lanetik. Ordaindu ezin dugulako, indarrez etxea kendu eta kanean utzi gaituzte. Indarrez suntsitu gura dute hainbeste esfortzu, ez-tabaida eta haserre eragin digun hezkuntza sistema hobegarria.

Esaera zaharrak dio “Indar-rak agintzen duenean, legea isilik”. Baina badaezpada hobe biak izatea, indar-zaleentzako baliabide bikaina baita legea. Adoreaz eta indarraz segitu dugu. Seaskaren kemena goraiatu du emakume berbatsuak; esan du Iparraldean euskal kulturaren transmisore eta eragile indartsua dela. Lege zaharkituari ir-mo erantzun diote. Kasketa kendu eta euskal boneta jartzeko iradoki diote Baionako suprefetari, inauterietarako bete-bete. Hemen, geure Durangaldean, euskal bonetadun asko ageri zaigun arren, bakoitzak bere astoari arrebegiten bizi gara, ondokoaren gurdia dakarrenari begiratu barik. Nork bereari bai, jakina, baina besteeneri ere begiratu beharko diogu eraikitzen ari garen etxetik, indarrez, bota gaitzaten ez badugu gura.



> PINTURA

Topaklown topaketa, martxoan, Durangon

San Agustin kulturaguneak eta Ganso & Cia taldeak antolatuko dute Durangoko Klown topaketa

> **I.E.**

Martxoaren amaierarako, bost egunerako egitaraua lotu dute Durangoko San Agustin kulturaguneak eta Ganso & Cia bertako antzerki konpainiak. Clown diziplinaren zale eta profesionalen zein publikoaren topagune izateko jaio da Topaklown. Horretarako, besteak beste, ikastaroak eta antzerki emanaldiak antolatuko dituzte. Euskal Herri-

ko, Irlandako zein Espainiako taldeen lanak izango dira ikusgai: bederatzik ikuskizun.

Bestetik, antzerkiko kode horretan sakondu edo clown-a eza-gutu gura dutenentzako ikastaroak ere eskainiko ditu jaialdiak: Anton Valen murtziarrak *El clown en la pista* saioa eskainiko du; *El clown a escena* tailerra gidatuko du Luisa Gaillard frantziarrak; eta Euskal Herri-

ko antzerkiko profesional bik ere jardungo dute ikastaroetan irakasle bezala: *Clown y cuerpo habitado* oinarritzko ikastaroa eskainiko du Virginia Imazek, eta *Tragedia griega y clown* Pablo Ibarluzeak.

Emozioak eta umore ona eskainiko ditu Topaklownek: “Elkartu eta garai nahasoi buelta emateko aitzakia da”, antolatzaileek diotenez.

Clown teknikaren gaineko lau ikastaro eta bederatzik antzerki emanaldi lotu dituzte martxo amaierarako



Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 10 20:00etan
GAZTA ZATI BATen soinu banda
Korrika Kulturaren barruan
MUSIKA KONTZERTUA. 10 euro.

OTSAILAK 14 20:00etan
BERBERTAN
Ametz Arzallusek Alberto Iñurrategiri

OTSAILAK 15 22:00etan
LOKALETIK AT
Drogeners + Kraussk + Pixontxis.
KONTZERTUA. Doan.

Eguneko menua astelehene-tik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

MUNDUARI ITZULIA
Teatro Gorakada

6 urtetik aurrera
Otsailak 17 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

> MUSIKA**> ITSASO ESTEBAN**

Gaur hasita, martxoaren 8ra arteko epea izango dute Durangaldeko musikariek euren kantak lehiaketara bidaltzeko. Parte hartzeko, Internetez bidali ahal izango dituzte lanak, maketa.udalgaztedi@gmail.com helbidera. Martxoaren 8rako jasotzen dituzten proposamen guztietatik bederatzi aukeratuko ditu epaimahai batek, eta horien artean banatuko dituzte Durangaldeko I. Maketa Lehiaketaren sariak: 1.800 eurokoa lehenengoari, eta 500ekoa euskarazko kanturik onenari.

Lehiaketaren sariak: 1.800 eurokoa lehenengoari, eta 500 eurokoa euskarazko kanturik onenari

Bizkaiko Aldundiaren Gaztedi Planean parte hartzen duten Iurreta, Durango, Abadiño eta Zornotzako udalek elkarlanean abiatu dute Durangaldeko lehenengo maketa lehiaketa.

Honako baldintzak ipini dituzte lehiaketan parte hartzeko: gutxienez, taldekideen erdia izan behar da 18 eta 35 urte bitartekoa eta Gaztedi Planean dauden Durangaldeko udalerriren batean erroldatutakoa. Aurretik diskoa grabatu duten taldeek ezingo dute parte hartu.

Durangaldeko Maketa Lehiaketa ipini dute eskualdeko lau udalek martxan

Iurreta, Durango, Abadiño eta Zornotzako udalek abiatu dute ekimena. Gaurtik aurkeztu daitezke lanak



Aurkezpenean azaldu dute-nez, musika adituek osaturiko epaimahaiak aukeratzen dituen bederatzi taldeek kontzertuak eskainiko dituzte Durango, Abadiño eta Zornotzako aretoetan, eta Durangoko Plateruena Kafe Antzokian kontzertua eskaintzeko aukera izango du lehiaketaren irabazleak.

Gazteak "euren taldeen kantak bidali eta kontzertu horietara etortzera" gonbidatu dituzte lau udaletako ordezkariak, Ibarretxe kultur etxeko aurkezpenean.

Parte hartu gura duten musika taldeek, lau udal horietako webguneetan deskargatu daitezkeen inskripzio orria bete, eta taldearen hiru kantagaz bate-

ra bidali beharko dute, martxoaren 8rako, maketa.udalgaztedi@gmail.com-era.

Maketa Lehiaketari buruzko informazio zabalagoa, Abadiño, Iurreta, Durango eta Zornotzako udaletako gazte sailetara deituta, edo udalgaztedi@gmail.com helbidera idatzita, eskuratu dezakete interesdunek.

Aurkezten diren guztietatik bederatzi talde aukeratuko ditu musika adituek osaturiko epaimahaiak

> MUSIKA

'Gazta zati bat' dokumentaleko doinuak zuzenean Plateruenean

Domekan, 20:00etan izango da musika, pintura eta proiektzioen ikuskizuna

Jon Maiak zuzenduriko *Gazta zati bat* dokumentalerako sorturiko musika zuzenean eskainiko dute, domekan, Durangoko Plateruenean.

Xabi Solano eta Zigor DZk sortutako kantak oholtzaratzeko proiektua abiatu berri dute, eta musika, irudiak era zuzene-

neko sorkuntza uztartzen ditu. Lau musikari eta margolari bat bildu dira ikuskizun horretarako: Esne Beltza taldeko Solano eta Zigor DZgaz batera, Keu Agirretxea eta Aitor Zabaleta musikariek eta Udane Juaristi margolariak parte hartzen dute *Gazta zati baten* oinarrituriko ikuskizun berrian.

Musikari eta margolariak bildu dira: Xabi Solano, Zigor DZ, Keu Agirretxea, Aitor Zabaleta, eta Udane Juaristi

Zuzeneko musika emanaldiak irauten duen bitartean, horma irudia osatuko du Udane Juaristi artistak. Argiek, koloreek eta irudi proiektzioek osatzen dute koadroa.

Joan zen domekan Hernaniko Biteri aretoan estreinatuta zuten ikuskizuna.

**> ARTEA**

Okinaren 'Ilargia esnatu da' liburuko ilustrazioak

Berrizen daude Okinaren ilustrazioak ikusgai

> I.E.

Iraia Okina Iurretako ilustratzaileak Joxantonio Ormazabal idazlearekin elkarlanean sorturiko *Ilargia esnatu da* liburuko irudiak daude ikusgai Berrizko kultur etxeko erakusketa aretoan, otsail hasieratik.

Otsailaren 21era arte egongo da irekita erakusketa hori Berrizko kultur etxean. Martitzenetik barikura, 18:30etik 20:00etara bisitatu ahalko da, eta asteburuetan Kultur Etxean

ekintza edo emanaldiren bat dagoenean ere zabalik egongo da Okinaren erakusketa.

Ilargia esnatu da libururako Joxantonio Ormazabal idazlea bilatzen ari zen "poesia eta kolorea" hedatzen laguntzen dute, hil honetan Berrizen ikusgai dauden Iraia Okinaren ilustrazioek. Bizitzari eta heriotzari buruzko poesiaz eta sentimenduz betetako erantzunak daude liburuko berba eta margolanetan.



➤ Aisialdia

➤ MENDI IBILBIDEAK



Durango MTB

Mugarra eta Anbotoren magaletatik ibiltzeko aukera ematen du ibilbideak.



Durangaldean zehar, bertako paisaia bizikletaz

Mugarra eta Anbotoren magalean zehar ibiltzeko aukera ematen du ibilbide honek; Durango, Iurreta, Abadiño eta Atxondo batzen ditu

> MARKEL ONAINDIA

Durangaldeko paisaia erakargarrietakoak hurretik ezagutzeko aukera ematen du ibilbide honek. Durango, Iurreta, Abadiño eta Atxondo zeharkatuz, Mugarra eta Anboto mendien magaletatik ibiltzea ahalbidetzen du.

Durangotik irten eta Iurretako San Andres auzorantz jotzea da bizikletariaren lehenengo eginbeharra. Auzoa zapaltzean, Neberondorako bidea hartu behar da. Hortik, Orozketarantz doan pista bat hartu behar da, eta Santa Luziatik eta Landeerratik pasatzea eragingo du horrek.

Orozketatik beherantz jarraitu, eta Durangora ailegatzean, Tabirara joatea eskatzen du. Gorantza egin eta Santikularreko antenatara joatea izango da hurrengo urratsa. Mendiola auzoa zeharkatu eta Atxartera jaitziko da txirrudularia. Sagastatik Axpera igarotzea lortuko du, eta hortik Apatamonasteriora segitu behar da.

Azkeneko pedalkadak geratuko dira hortik aurrera. BI-632 errepidearen albo batetik Abadiñora hurreratu, eta bidegorria hartuta, Durangora ailegatuko da, helmugara.

ZER IKUSI



Neberondo.



Axpe.

DISTANTZIA

35,78 km

IRAUPENA

2 ordu 30 min

IGOERA METATUA

826 m

ZAILTASUNA

Gogorra



durango
TURISMO

institutua
Durango

> IGERIKETA

Egoitz Uranga (Berriz, 35 urte) eta Mikel Usobiaga (Soraluze, 43 urte) Berrizko igerilekuan.

“Norbere burua igeri ikusteak bestela lortu ezin den informazioa ematen du”

Mikel Usobiagak eta Egoitz Urangak Berrizko kiroldegiko erabiltzaileen igeriketa saioak grabatuko dituzte, ondoren grabazioak igerilariari eman eta euren teknika hobetzeko aukera izan dezaten

> JOSEBA DERTEANO

Estatuan aitzindaria dela dioten ekimen honegaz, normalean goi mailako igerilariak bakarrik eskuragarri izaten duten informazioa denen eskura ipini gura dute Mikel Usobiaga eta Egoitz Uranga Berrizko igerilekuko langileek.

Non du sorburua ekimen honen?

Mikel Usobiaga: Ni bideogintzan eta argazkilaritzan apur bat ibilia naiz, eta banekien gure kamera horrelako zerbaiteko egiteko proposa zela. Iaz kamera hartu eta igeriketa saioak grabatu genituen, baina geure artean. Oso aprobetxagarria zela iritzien genion. Orduan, bideo grabaketa horiek Berrizko igerilekuko bazkideei eskaintzea pentsatu genuen.

Egoitz Uranga: Proba horien bideoak igerilekuko pantailetan ikusgai egon dira. Jendearen artean interesa sortu du, eta 35 bat lagunek izena eman dute.

Nori zuzenduta dago?

E.U.: Igeriketa maila hobetzea gura duten bazkide denentzako da, baina, batez ere, igerian egiteko ohitura duten eta sarritan etortzen direnentzat. Euretari-ko asko triatlويتan dabilta.

Inoiz egin al da antzeko ekimenik Durangaldean edo Euskal Herrian?

M.U.: Eskaintzen dugun formatua zein den ikusita, Estatuan aitzindariak izango garela uste dugu. Alde batetik, doakoa izango da. Bestetik, IAT (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa) antzeko zerbaite eskaintzea dugu buruan. Azken batean, norbere teknika ikusteko tresna bat izango da. Normalean, igeriketa ikastarotara joan eta irakaslearen aholkuak entzutera mugatzen da guztia. Baina norbere burua bideo batean igerian ikusteak bestela lortzen ez den informazio baliagarria ematen du.

E.U.: Igerian ari zarenean norbere buruaren pertzepzioa ez da oso ona. Badira igerilari batzuk beren burua ikusi eta ez direnak irudiekin identifikatuta sentitu. Egoera erabat aldatzen da bideoan ikustean. Igerilari bakoitzari lau edo zortzi bat itzuli gra-

batuko dizkiogu, eta gura duen igeriketa estiloan.

Zer neurritan lagundu diezaioke igerilari bati bere burua igerian ikusteak?

M.U.: Ikusmena eta entzumenaren informazioa jasotzeko ohiko bideak dira. Irakasleak dioena entzutea baliagarria da, baina irudiak ikusita entrenatzaileen munduan *feedback* edo retroinformazio legez ezagutzen duguna ematen da. Geure igeriketa moduaren gainean ditugun kontzeptuak aldatu egiten dira bat-batean. Gure helburua informazio hori guztia demokratizatzea ere bada. Izan ere, gaur egun nork du informazio mota hori eskuratzeko aukera? Txapelketetan dabiltazen goi mailako igerilariak eta beste gutxi batzuek. Guk esparru hori zabaltzea gura dugu.

Ur azpiko irudiak bakarrik grabatuko dituzue?

M.U.: Ur azpikoak eta gainekoak grabatuko ditugu. Baina informazio gehien ur azpikoak eskainiko du, mugimendu guztiak garbi ikusten direlako.

“

Igerilari batzuk beren burua grabatuta ikusi eta ez dira irudiekin identifikatuta sentitu”

“

Igeriketan ohiko huts asko daude, ur azpian eskuak gurutzatzea, esaterako”

Grabaketak ikusi ondoren, aholkuak emango dituzue?

M.U.: Lehenengo pauso honetan grabaketak egin, ‘youtube’-n sartu eta igerilari bakoitzari bere lotura emango diogu. Zuzenketak bigarren pauso batean eskaintzea da asmoa.

Aurten egin duzue probarik?

M.U.: Oraindik ez. Astelehenean proba batzuk egin nituen argiztapena kameragaz bateragarria den ikusteko. Izan ere, urak jan egiten du argia. Printzipioz, izena eman duten denekin otsailaren 22an arratsaldean eta 23an goizez geratzen saiatuko gara, grabaketak egiteko.

Igerilarien artean, zeintzuk dira ohiko okerrak?

E.U.: Ohiko huts asko daude: besakada botatzerakoan hankak zabaltzearena, esaterako, edo ur azpian eskuak gurutzatzearena.

Izen-ematea oraindik amaitu barik dago?

E.U.: Bai, baina lehenengo bider hau igerilekuko bazkideetara mugatu dugu. Ondo iriteten bada, ekimena jende gehiagori zabaltzea da gure asmoa. Izena eman gura duenak 946826244 telefonora deitu eta guregatik galdetu dezake. Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke udaleko langileak garela eta ez azpikontratutako enpresa batekoak. Berrizko Udalak asmatu egin du horretan, eta hori ere baloratze-ko kontua dela uste dugu.

> SOKATIRA

Indarrak parean heldu dira finalera Abadiño eta Ibarra

Sailkapen fase bana irabazita, 640 kilora arteko txapela janzteko faboritoak dira Abadiño eta Ibarra, bihar, Landako Gunean jokatu den finalean



Iaz Durangoko pilotalekuan jokatu zen txapelketako Abadiño Sokatira Taldearen tiraldia. Gorka Larrinaga

JOSEBA DERTEANO

Durangoko Landako Gunean, 640 kilora arteko sokatira txapelketako finala —goma gainean— jokatu dute zapatuan, 17:00etan. Emakumeen ligari dagokion jardunaldia ere lehiatu dute.

Gizonetan, Abadiño, Ibarra, Ñapurak, Zudaire, Murueta eta Berriozar sailkatu dira finalerako. Abadiño eta Ibarra dira txapela janzteko faborito nagusiak, sailkapen faseetan indartsu azaldu direlako. Orain hiru aste Mungian jokatu dute lehengo jardunaldia Ibarrek irabazi zuen Abadiñoaren aurretik. Idiazabalen jokatu dute bigarrenetan, aldiz, Abadiño nagusitu zen Ibarren aurretik. Ñapurak taldea, oster, sorpresa ematen saiatuko da.

Urtarrilaren 13an Gernikan jokatu dute 680 kilora arteko txapela janzteko faborito nagusiak, sailkapen faseetan indartsu azaldu direlako. Orain hiru aste Mungian jokatu dute lehengo jardunaldia Ibarrek irabazi zuen Abadiñoaren aurretik. Idiazabalen jokatu dute bigarrenetan, aldiz, Abadiño nagusitu zen Ibarren aurretik. Ñapurak taldea, oster, sorpresa ematen saiatuko da.

“Aurten hainbat taldek pisu handiei begirako taldea osatu dute eta guk, berriz, urteroko taldeari eutsi diogu”

Urtarrilaren 13an, Abadiño Sokatira Taldeak 680 kilora arteko txapelketa irabazi zuen Gernikan jokatu dute finalean

pelketan Abadiño nagusitu zenez —Euskal Herriko txapeldun geratu ziren—, zapatu honetan irabaziz gero, goma gainean eta pisu nagusietan onena dela erakutsiko luke. Abadiño irabazteko ohituta dagoen arren, aurten pisu nagusietan lortutako garai-

penei balio berezia ematen die Edu Mendizabal entrenatzaileak: “Aurten pisu handiei begirako taldea osatu dute hainbat taldek. Guk, berriz, urteroko taldeari eutsi diogu. Aurten, beharbada, pisu txikietan talde indartsuagoa dugu”.

Durangoko finalak badu berezitasun bat. Aurten Gernikan sortu duten Murueta taldea bertatik bertara jarraitzeko aukera egongo da.

Badaiotz eta Ibarra berdinduta

Emakumeen sokatira liga osatzen duten hiru jardunaldietatik bigarrena jokatu dute Durangon, Badaiotz, Ibarra eta Bizi-indar (Artziniega, Araba) taldeek. Lehengo jardunaldian berdindu egin zuten Badaiotzek eta Ibarrek eta biharkoan ere, euren arteko tiraldiak izango dira gogorrenak.

> TRIATLOIA

Durangoko duatloian izen-emateko epea hasi da

> JOSEBA DERTEANO

Martxoaren 9an Durangoko VII. Duatloi Laburra antolatuko du Mugarra taldeak. Izen-emateko epea martxoaren 7ra artekoa da, www.triatloi.org webgunean. Federatuentzako 22 euro izango da. 500 parte-hartzaile mugatu dute kopurua.

Ezkurdi plazan hasiko dute duatloia, eta bost kilometroko ibilbideari itzuli bi emango dizkiote korrika. Ondoren, bizikleta hartu eta Atxondo, Elorrio eta Kanpazarretik bueltan 40 kilometro egingo dituzte, berriro Durangora etorri eta zirkuituari azkeneko itzuli bat korrika eman aurretik.

Duatloia irabazleak 300 euro jasoko ditu emakumeetan zein gizonetan; bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro jasoko dituzte.

> SASKIBALOIA

Tabirako udako eskolarako entrenatzaile bila dabil

> JOSEBA DERTEANO

Ekainean antolatuko duen udako eskolari begira, entrenatzaile eta monitorea bila dabil Tabirako saskibaloia kluba. Entrenatzaileen zein monitorea kasuan, hainbat baldintza hartuko dituzte kontuan: Tabirako bazkidea izatea, euskara ondo menderatzea (ekimen osoa euskaraz garatuko da), entrenatzaileen lehen mailako titulazioa izatea, aurtengo denboraldian klubeko jokalariei edo entrenatzaileei izatea, eta aurreko udako eskoletan ere parte hartu izana, besteak beste.

Interesatuak honako helbide honetara idatzi dezakete otsailaren 15a baino lehenago: tabirako@gmail.com.

ADITUAREN TXOKOA**Gotzon Gomez**

Errugbia

VI Nazioak lehiatzen

Urtero lez, otsaila hastearrekin batera, Europa mailan dagoen errugbi txapelketa garrantzitsuena martxan dugu jadanik.

Lehenengo ezustekoak gertatu dira. Galesek, iaz aurkari guztiak garaituta Gran Slama eskuratu zuen taldeak, etxean galdu egin zuen Irlandaren aurka. Partiduak 22-30eko emaitza erakutsi arren, irlandarrak hasiera-hasieratik aurreratu ziren eta beraien lerroa ondo mugituta 3-30 heldu ziren atsedendira.

Larunbatean ingelesek, pronostiko guztiak betetz, 38-18 hartu zuten mendean Eskozia, eta bide batez, Calcutta Cup lortu ere bai. Partidu polita eta bizia izan genuen, behintzat lehenengo zatian, baina bigarrenetan Stuart Lancasterrek zuzentzen duen taldeak ez zion aukerarik eman arerioari.

Jardunaldiko ezustekorik handiena Italiak eman zuen Frantzia menderatu ondoren. Ikuskizun ederra eskaini zuten talde biek, emozioz betetakoa (23-18). Azken bi urteetan bigarren aldiz, Italiak mendean hartu du Frantzia, apustu etxeetan sekulako saltsa sortuta.

Emaitzak aztertuz, Inglaterra eta Irlanda ditugu aukera gehiagorekin aurtengo txapelketa irabazteko, baina izandako ezustekoak ikusirik edozein gauza gerta daiteke.

Asteburuan, ikuskizunak aurrera jarraituko du. Esaterako, hil ala biziko partiduan, Frantziak eta Galesek dituzten aukera apurrak gauzatu behar dituzte, bestela egurrezko koilara eramateko bidean dira talde biak.

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO

> KROSA

Iraia Garciak eta Belit Solarrek etxean izango dute areriorik nagusiarena etzi

Bidezabalgo Iraia Garcia eta Belit Solar etzi Zornotzan jokatu den kros luzeko Euskadiko txapelketa irabazteko faborito nagusiak dira; gizonetan Durango Kirol Klubeko David Garciak podiuma du helburu



Bidezabalek hainbat domina lortu ditzake domekan.

JOSEBA DERTEANO

Domekan, 10:00etan, kros luzeko Euskadiko txapelketa jokatu dute Zornotzan, Jauregibarria inguruko zirkuituan. Emakumeen elite mailan, Bidezabalgo Iraia Garcia durangarra eta Belit Solar barakaldoarra dira irabazteko faborito nagusiak. Solarrek Kros Laburreko Euskadiko Txapelketa

irabazi zuen joan zen asteburuan, Ortuellan, eta Iraia Garcia laugarren sailkatu zen. Baina orain hiru asteburu, Iraia Garciak Bizkaiako Kros Txapelketa irabazi zuen Abadiñon, eta hirugarren sailkatu zen Solar. Ikusteko modukoa izango da Bidezabalgo atleta bien arteko lehia. Bide batez, taldeko sailkapena irabazi dezakete.

Gizonetan, Durango Kirol Klubeko David Garcia da esperantzaz nagusia. Durangarrak podiumean sartzea du helburu, baina garaipena ia ezinezko ikusten du. Izan ere, Iban Fernandez arbarra "aurten beste denok baino koska bat gorago" dabilela onartu du. Fernandezek azken lau aldietan irabazi du kros luzean Euska-

diko txapelketa. Podiuma zapaltzeko bidean arerio nagusiak Eneko Agirrezabal (Txindoki A.T.) eta Aingeru Gutierrez-Cabello (Real Sociedad) izango ditu. Ortuellan, kros laburreko txapelketa (4 km), aurretik geratu zitzaizkion biak, baina Garcia hobeto moldatzen da distantzia luzeetan.

Podiumaren bidean, David Garciak Eneko Agirrezabal eta Aingeru Gutierrez-Cabello ditu arerio nagusiak

Gazte mailan, hainbat aukera

Gazteen mailan eta nesketan, txapelak Durangaldera etorri behar luke. Okerrrik ezean, Bidezabalgo Garazi Lekunberri eta Leire Santamaria, eta, Durango Kirol Klubeko Izaro Telleriaren artean egongo da aurreneko postua.

Nesken kadeteetan Bidezabalgo Naroa Martinez (faborito nagusia), Ines Pinaga eta Alejandra de Pablo aurrean ibiliko dira. Mutilen kadeteetan, Alejandro Bilbao (Bidezabal) ere irabazteko lehiatuko da.

Azkenik, junior mailan Durango Kirol Klubeko Olatz eta Nerea Agirrebeitia bikiak taldekako sailkapenean bigarren geratzen saiatuko dira.

> PILOTA

Lan asko eta zorte apur bat, txapela janzteko

Larretxea eta Lazkanok irabazi dute San Blas saria

Olivier Larretxeak eta Vincent Lazkanok Ipar Euskal Herriera eraman zuten San Blas Sariako txapela, Agusti Waltary eta Inhar Ugarte 40-39 menderatu ondoren.

Larretxeak eta Lazkanok ofizioa bikain ezagutzen dutela erakutsi zuten. Waltary eta Ugarte hotz hasi ziren, baina partidu er-

